

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Lehen aldiz, Nafarroak bonu berdeak eta sozialak jaulkiko ditu, 50 milioi eurokoak, gardentasuna sustatzeko eta garapen jasangarria finantzatzeko

*Gobernuak departamentuarterko komisio bat sortu du bonuak zer baldintzatan jaulkiko diren zehazteko eta zer proiekturi emango zaizkien erabakitzeke*

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

Aurten lehen aldiz, Nafarroak bonu berdeak eta sozialak jaulkiko ditu, 50 milioi eurokoak, gardentasuna sustatzeko eta garapen jasangarria finantzatzeko. Horretarako, Exekutiboak departamentuarterko komisio bat sortu du gaur, bonuak zer baldintzatan jaulkiko diren zehazteko eta zer proiekturi emango zaizkien erabakitzeke.



Nafarroako Gobernua gaurko bilkuran.

Bonu Jasangarrien Merkatuak jaulkiko ditu bonu horiek. Bonu berdeak eta sozialak izango dira, eta jasangarritasunarekin eta administrazio publikoak gizartearen aurrean duen erantzukizunarekin erlacionatutako jarduerak eta proiektuak finantzatzea dute helburu.

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk Gobernuaren bileraren ondoren izandako prentsaurrekoan azaldu duenez, «finantza-politika eta jasangarritasunaren estrategia lotzeko aukera bat da. Bonu horiek jaulkitzean, konpromiso bikoitza hartzen du Exekutiboak: batetik, gardentasunez jardutekoa; eta, bestetik, politika publikoak lerrokatzekoa, garapen jasangarria finantzatze aldera, Nazio Batuen 2030eko Agendan dauden Garapen Jasangarriko 17 helburuekin eta Europako Batzordeak xede bererako duen Ekintza Planarekin bat etorritz».

Aranburuk nabarmendu duenez, «Nafarroa mota honetako kudeaketa garden eta jasangarriaren lehen tokietan dago, horrelako bonuak jaulki dituen Estatuko hirugarren komunitatea baita, Madrilen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren atzetik. Gainera, proiektu hau martxan jarri duen hain tamaina txikiko lehenengo komunitatea da, eta, horretarako, 50 milioi euro inguruko kapitala bideratu du».

Urtero bezala, Nafarroako Gobernuak 2019an zorpetzeko baimena eskatu du, 280 milioi euroko balio maximoarekin; haietatik gutxi gorabehera

50 milioi bonu jasagarriak jaulkitzeko izango dira.

### **Ezaugarriak**

Gaurko bileran, Exekutiboak lehen urratsa egin du: departamentuarteko komisio bat sortu du, zeinak bonuak zer baldintzatan jaulkiko diren zehazteko eta zer proiekturi emango zaizkien erabakitzeko ardura izango duen. Bonu berdeak jaulkitzeko, irizpide hauek hartu behar dira aintzat, besteak beste: eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak, kutsaduraren prebentzioa eta kontrola, uraren eta hondakin-uren kudeaketa jasagarria, eta eraikin ekologikoak.